



LS/ig

FA-IOH-039/17
21-IN

Ingurumeneko eta Obra Hidraulikoetako foru diputatuak gaurko datarekin, ondorengo **Foru Agindua** eman du:

“2008ko abenduaren 23ko 7/2008 Foru Arauak, Gipuzkoako Hiri Hondakinak Kudeatzeko 2002-2016ko Plan Orokorraren aurrerapen agiria (2008-2016) onartzen duenak, 5. artikuluan ezarri zuen Gipuzkoako Foru Aldundiaren konpromisoa, Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioari bere eskumenekoak diren azpiegitura kostuen % 33 finantzatzekoa. Horretarako, Garapen Iraunkorreko Departamentuko diputatuaren 2009ko ekainaren 25eko Foru Aginduaren bidez, Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioari 126.971.130,00 euroko diru laguntza izenduna eman zitzaion, azpiegitura kostuen % 33 finantzatzeko; era berean, eranskinean finkatu ziren diru laguntzaren baldintza arautzaileak.

Gerora, Ingurumeneko eta Lurralde Antolaketako diputatuaren 2011ko abenduaren 13ko Foru Aginduaren bidez, diru laguntzaren zenbatekoa aldatu zen, eta kostuen banaketa berri bat ezarri zen, zein, era berean, aldatua izan baitzen, 2013ko urtarrilaren 30eko Foru Aginduaren bidez. Azkenik, aipatutako 2013ko abenduaren 17ko Foru Aginduaren bidez aldatu ziren 2009ko ekainaren 25eko Foru Aginduak ezarritako diru laguntza izendunaren baldintza arautzaileak.

Beste alde batetik, Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioak erabaki zehatz batzuk hartu ditu, bere Estatutuen arabera bere eskumenekoak diren zerbitzuak kudeatzeko modua aldatzera bideratuak. Zehazki, erabaki du obra publikoetako administrazio emakida baten bidez gauzatzea, zerbitzuaren zeharkako kudeaketa gisa, Gipuzkoako Ingurumen Guneari dagozkion azpiegituren finantzaketa, diseinu, eraikitze, mantenu eta operazioen jarduketak, eta, horretarako, bere sozietate instrumentalak –GHK SAU– arduratu zuen zerbitzu zerrendatik kendu zen azpiegitura horiei lotutako jardueren exekuzioa, nahiz eta bere hainbat ardurarentzat zuzenean kudeaketako bere izaera mantenduz, hori

El Diputado Foral del Departamento de Medio Ambiente y Obras Hidráulicas, con fecha de hoy ha dictado la siguiente **Orden Foral**:

“El artículo 5 de la Norma Foral 7/2008, de 23 de diciembre, por la que se aprueba el Documento de Progreso (2008-2016) del Plan Integral de Gestión de Residuos Urbanos de Gipuzkoa (2002-2016), estableció el compromiso de la Diputación Foral de Gipuzkoa de financiación al Consorcio de Residuos de Gipuzkoa del 33% del coste de las infraestructuras en alta que le competen. Para ello, por Orden Foral del Diputado del Departamento de Desarrollo Sostenible de 25 de junio de 2009 se concedió al Consorcio de Residuos de Gipuzkoa una subvención nominativa por importe de 126.971.130,00 euros para la financiación del 33 % del coste de las infraestructuras en alta, fijándose así mismo en su anexo las condiciones reguladoras de la subvención.

Posteriormente, por Orden Foral del Diputado de Medio Ambiente y Ordenación del Territorio de fecha 13 de diciembre de 2011 se modificó el importe de la subvención, estableciéndose una nueva distribución del gasto que, a su vez, fue modificada por Orden Foral de 30 de enero de 2013. Finalmente, por Orden Foral de 17 de diciembre de 2013 se modificaron las condiciones reguladoras de la subvención nominativa establecidas en la mencionada Orden Foral de 25 de junio de 2009.

Por otra parte, el Consorcio de Residuos de Gipuzkoa ha adoptado los acuerdos precisos conducentes al cambio de modo de gestión de parte de los servicios que le competen según sus Estatutos. En concreto, se acordó que las actuaciones de financiación, diseño, construcción, mantenimiento y operación de las infraestructuras correspondientes al Complejo Medioambiental de Gipuzkoa se realicen mediante una concesión administrativa de obras públicas, como una forma de gestión indirecta del servicio, para lo cual se suprimió de la cartera de servicios que tenía encomendada su sociedad instrumental, GHK, S.A.U. la ejecución de actividades vinculadas con dichas infraestructuras, aunque



guztia, azpiegitura berriak exekutatzeke helburuarekin, zorpetzearen ez-konsolidazioko testuinguru batean, defizit publikoaren eta administrazio publikoaren zorpetzearen kontrolari buruzko obligazioak betetzeko ondorioetarako.

Beste alde batetik, lehen aipatutako aldatetengatik planteatzen den egoera berri horren aurrean, Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioari dagokionez, Foru Aldundiak hartutako konpromisoak ezartzeko xedez, 2016ko abenduaren 23ko 8/2016 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko aurrekontu orokorrak onartzen dituenak, 2008ko abenduaren 23ko 7/2008 Foru Arauaren 5. artikulua aldatu du, arau horretan jasotako konpromisoa indarrean mantentzeko asmoz, zein aipatutako arauko hitzaurrean ezartzen baita, adierazten duenean "Foru arau honek ere jasotzen du Gipuzkoako Foru Aldundiak finantzatzea onartzen den plangintzan jasotako azpiegituren kostuaren % 33", eta ezartzen du, aipatutako % 33a kalkulatzeko, kontuan hartuko dela aipatutako arauan aurreikusitako azpiegituren balioa.

Aurrekoaren ondorioz, gaurko datarekin, Diputatuen Kontseiluak, departamentu honen proposamenez, erabaki bat hartu du, zeinetan, Kontsortziari egungo ekitaldiko Departamentu honen aurrekontuan esleitutako zenbatekoaren zuzeneko diru laguntza bat ematea onartzeaz gain, diru laguntzaren baldintza arautzaile berriak ezartzen baitira, Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioaren egungo lege eta antolakuntza egoerari egokitutakoak. Beraz, indarrrik gabe utzi behar da aipatutako 2013ko abenduaren 17ko Foru Agindua, diru laguntzaren baldintzak aurreko testuinguruan jasotzen zituenak.

Horren arabera, Ingurumeneko eta Obra Hidraulikoetako foru diputatuak

EBAZTEN DU

Bakarra.- Indarrrik gabe uztea, Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioari emandako diru laguntzaren baldintza arautzaileak, azpiegitura

manteniendo para diversas encomiendas su carácter de instrumento de gestión directa, todo ello con la finalidad de ejecutar las nuevas infraestructuras en un contexto de desconsolidación del endeudamiento, a efectos de cumplimiento de las obligaciones relativas al control de déficit público y endeudamiento de las Administraciones Públicas.

Por otra parte, y al objeto de acomodar los compromisos adoptados por la Diputación Foral con respecto al Consorcio de Residuos de Gipuzkoa ante la nueva situación planteada por los cambios anteriormente señalados, la Norma Foral 8/2016, de 23 de diciembre, por la que se aprueban los Presupuestos Generales del Territorio Histórico de Gipuzkoa, ha modificado el art. 5 de la Norma Foral 7/2008, de 23 de diciembre, al objeto de seguir manteniendo en vigor el compromiso recogido en dicha norma y que viene establecido en el preámbulo de dicha norma cuando señala: "La presente Norma Foral contempla también la financiación por parte de la Diputación Foral del 33 por ciento del coste de las infraestructuras en alta recogidas en la planificación que se aprueba", estableciendo que a efectos del cálculo de dicho 33%, se tendrá en cuenta el valor de las infraestructuras previstas en dicha norma.

A consecuencia de lo anterior, con fecha de hoy, el Consejo de Gobierno, a propuesta de este Departamento, ha aprobado un Acuerdo en el que, además de aprobar la concesión directa de una subvención al Consorcio por el importe consignado en el presupuesto de este Departamento en el ejercicio actual, se establecen las nuevas condiciones reguladoras de la subvención, adecuadas a la actual situación jurídico-organizativa del Consorcio de Residuos de Gipuzkoa, por lo que procede dejar sin efecto la Orden Foral anteriormente citada de 17 de diciembre de 2013 que contenía las condiciones de la subvención en el contexto anterior.

En su virtud, este Diputado Foral de Medio Ambiente y Obras Hidráulicas,

RESUELVE

Único.- Dejar sin efecto las condiciones reguladoras de la subvención concedida al Consorcio de Residuos de Gipuzkoa para la



kostuen % 33 finantzatzekoak, 2013ko abenduaren 17ko 140/2013 Foru Aginduaren eranskinean jasotzen direnak, zeintzuk, hemendik aurrera, arautzen baitira Diputatuen Kontseiluaren 2017ko ekainaren 13ko Erabakiaren eranskinean, bat etorrita 2008ko abenduaren 23ko 7/2008 Foru Arauaren 5. artikulua idazketa berriekin, zeinaren bidez onartzen baita Gipuzkoako Hiri Hondakinak Kudeatzeko 2002-2016ko Plan Orokorraren aurrerapen agiria (2008-2016).

Foru agindu hau behin betikoa da eta amaiera ematen dio administrazio bideari. Interesatuak foru agindu honen aurka zuzenean aurkez dezakete **ADMINISTRAZIOAREKIKO AUZI ERREKURTSOA** Administrazioarekiko Auzietako Donostiako Epaitegietan, **BI HILABETEKO EPEAN**, jakinarazpenaren biharamunetik hasita.

Hala ere, aukera dute horren aurretik **BERRAZTERTZEKO HAUTAZKO ERREKURTSOA** aurkezteko foru diputatu honi **HILABETEKO EPEAN**, jakinarazpenaren biharamunetik hasita. Hori eginez gero, ezingo da administrazioarekiko auzi errekurtsorik aurkeztu harik eta berraztertzearen berriazko ebazpena eman edo presuntziozko ezespena gertatu arte. Dena dela, egoki irizitako beste edozein errekurtsio aurkez daiteke."

Zuen jakinerako eta dagozkion ondorioetarako adierazten dizuedana.

financiación del 33% del coste de las infraestructuras en alta, contenidas en el anexo de la Orden Foral 140/2013, de 17 de diciembre, que en lo sucesivo quedan reguladas en el anexo del Acuerdo de Consejo de Gobierno Foral de 13 de junio de 2017, acorde con la nueva redacción del artículo 5 de la Norma Foral 7/2008, de 23 de diciembre, por la que se aprueba el Documento de Progreso (2008-2016) del Plan Integral de Gestión de Residuos Urbanos de Gipuzkoa (2002-2016).

La presente Orden Foral es definitiva y pone fin a la vía administrativa. Las personas interesadas podrán interponer directamente contra ella **RECURSO CONTENCIOSO-ADMINISTRATIVO** ante los Juzgados de lo Contencioso-Administrativo de San Sebastián, en el plazo de **DOS MESES** a partir del día siguiente al de su notificación.

No obstante las personas particulares, con carácter previo, podrán interponer **RECURSO POTESTATIVO DE REPOSICIÓN** ante este diputado foral, en el plazo de **UN MES** a partir del día siguiente al de su notificación. En este caso, no se podrá interponer recurso contencioso-administrativo hasta que sea resuelto expresamente el de reposición o se haya producido su desestimación presunta. Todo ello sin perjuicio de la interposición de cualquier otro recurso que se estime pertinente."

Lo que le comunico a Vd. para su conocimiento y efectos oportunos.

Donostia, 2017ko ekainaren 13a
San Sebastián, a 13 de junio de 2017

IDAZKARI TEKNIKOA, / LA SECRETARIA TÉCNICA,

Izp. / Fdo.: **Lourdes Sanjuán Arregain**

